

Gurasoak, agur:  
Ohar bilduma honetan azken berriak plazaratu nahi ditugu.

### IKASTURTE AMAIERAKO INFORMEAK

lazko ikasturte bukaeran, posta elektronikoz jaso zenituzten zuen haurren informeak HH3tik LH3ra. Egoerak hala eskatuta, sinatutako kopiarik jaso ez dugunez, jakinarazi nahi dizuegu, aste beteko epean erreklamaziorik jasotzen ez badugu, onartutzat hartuko ditugu informe horiek.

### OHIKO BATZAR NAGUSIA

Aste honetan, urriaren 20an Ohiko Batzar Nagusirako deialdia jaso duzue. Covid19a dela eta, eskertuko genizueke bertan parte hartzeko asmoa duzuenok, aurrez izena emango bazenute, hartu beharreko segurtasun neurriak kontuan izan eta espazioen antolaketa behar bezala egin dezagun. Familia bakoitzetik kide bakarra etortzea eskatzen dizuegu.

Inork **itzultzailea beharko balu**, eskaera egitea eskertuko genuke esandako helbide eta epearen barruan.

Izena emateko epea: **urriaren 16a**. Izena emateko helbidea: [zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus)

### GORPUTZ HEZKUNTZA

Eguraldiak ahalbidetzen duen guztietan gorputz hezkuntzako saioak kanpoan egingo direnez, eta saioetan azalpenak eta intentsitate handiago eta txikiagoko jarduerak tartekatzen direnez, komenigarria da jertsea ekartzea.

### HEGAN OINEZ

Datorren urriaren 18an ospatzekoa zen **Nafarroa Oinez** Lizarra ikastolan, baina bertan behera uztea erabaki zuten. Jai hau ospatzeko data zehazteke badago ere, lanean dihardutela esan digute eta on-line dendarekin lanean jarraitzen dutela. Besarkada bat Nafarroako ikastolakideei!

### BEKA DEIALDIA

Gaur zabaldu da beka eskatzeko deialdia. Astelehenean mezu berezi bat bidaliko dizuegu zein jarraibide izango ditugun adieraziz. **Beraz, adi egon!** Dena den, informazio orokorra [Hezkuntza Sailaren atal honetan](#) aurkituko duzue.

### BARATZETIK ETXERA PROIEKTUA

Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek egiten ari den Kontsumoari buruzko lan baterako laguntza eskatu digu. Orain galdetegi bat zabaltzen ari dira kontsumitzaileen informazioa lortzeko: non egiten duten erosketa, zenbat aldiz, eta abar. Esteka honetan duzue galdetegia eta ahal duzuenok betetzea eskertuko genizueke.

<https://forms.gle/rMsQCQChagYN2mn38>

Besterik gabe, adeitasunez,

ZUZENDARITZA

Estimadas familias:

Con este mensaje os remitimos las últimas notas informativas.

### **INFORMES FIN DE CURSO**

Al final del curso pasado, recibisteis por correo electrónico los informes de vuestros hijos e hijas desde HH3 a LH3. Ante la falta de copias firmadas por la situación, se os informa que si en el plazo de una semana no se reciben reclamaciones, se considerarán aceptados dichos informes.

### **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Esta semana, recibisteis la convocatoria de la Asamblea General Ordinaria del 20 de octubre. Con motivo del Covid19, os agradeceríamos que las personas que tengáis intención de participar en la misma, nos lo comunicuéis para poder adoptar las medidas de seguridad necesarias y hagamos una correcta ordenación de los espacios. Os pedimos que sólo venga un miembro de cada familia.

Si alguien **necesitara traductor/a**, agradeceríamos que lo solicitara en la misma dirección y plazo indicados.

Plazo de inscripción: **16 de octubre**. Dirección de inscripción: [zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus)

### **EDUCACIÓN FÍSICA**

Dado que siempre que el tiempo lo permita las sesiones de educación física se realizarán en el exterior y en las sesiones se intercalan explicaciones y actividades de mayor y menor intensidad, es conveniente traer jersey.

### **HEGAN OINEZ**

El 18 de octubre era la fecha de la celebración de la fiesta **Nafarroa Oinez** en la ikastola Lizarra-Estella pero se ha optado por suspenderlo. Aunque falta por concretar la fecha de la celebración de esta fiesta, nos dicen que continúan en marcha y que siguen trabajando con la [tienda on-line](#). ¡Un abrazo a la ikastola navarra!

### **CONVOCATORIA DE BECAS**

Hoy se ha abierto la convocatoria para solicitar becas de estudio. El lunes os enviaremos un mensaje especial indicando las instrucciones a seguir para realizar las solicitudes. No obstante, la información general la encontraréis en esta [sección del Departamento de Educación](#).

### **PROYECTO BARATZETIK ETXERA**

Un grupo de estudiantes de “MondragonUnibertsitatea” nos ha pedido ayuda para un trabajo sobre el Consumo que está realizando. Han publicado un cuestionario para obtener información de los consumidores/as sobre dónde realizan la compra, cuántas veces, etc. En este enlace tenéis el cuestionario y os agradeceríamos que lo cumplimentéis quienes podáis. <https://forms.gle/rMsQCQChagYN2mn38>

Sin otro particular, un saludo,

ZUZENDARITZA